

Badator L.O.E. a!

STEE-EILASen balorazioa aurreproiektuaz

Joan den martxoaren 30ean, **Maria Jesús San Segundo** hezkuntza ministrariak aurkeztu zuen Madrileko Parlamentuan eztabaidatuko den **Ley Orgánica de Educación (LOE)** delakoaren aurreproiektua. Aurreproiektua estatu mailako hezkuntza eragileen artean egon den eztabaida prozesu sendo baten ondorioz sortu da, Alderdi Popularraren LOCErekin gertatu ez zena. Halaz ere, debate hori ez dute erabili Euskal Herriko erakundeek gure hezkuntza sistemai beharrezko txekoa egiteko. *“Hoberenak gara”* eta *“proposatzen dutena hemen egiten dugu”* bezalako esaldiekin baztertu egin dute nahi dugun eta behar dugun hezkuntza sistemari buruzko debate eta kontzentsurako abagunea.

Agiri honek PPren Hezkuntza Kontraerreformak LOCEren bitartez martxan jarri nahi izan zuen neurri asko geldiarazi egiten du: errebalida, DBHeko ibilbideak, Haur Hezkuntzako Lehen zikloak duen hezkuntza balioa indargabetzea, zuzendariak Administrazioak zuzen zuzenean aukeratu ahal izatea... Horrez gain sistemarako egokiak diren neurriak ere ezartzen ditu: aniztasuna trastearen aldeko apustua, irakasgai gutxiago izatea DBHko 1. eta 2. mailetan, iraileko azterketak kentzea DBHko hasierako hiru mailetan, ebaluaketa bilduen berreskurapena...

Estatu mailan hezkuntzari buruz dagoen arautegia argitzen lagunduko du ere, azken hamabost urteetan onartu diren hiru lege organiko (LOGSE, LOPEG eta LOCE) testu bakar batean batuz. Gogoratu beharra dago Eusko Biltzarrak hezkuntza arloan duen eskuduntza mailari esker EAEn badugula hezkuntza sistema arautzen duten hainbat lege. Zalantzazkoa da zergatik egon behar ote diren lege organikorik arlo horretan Komunitate Autonomoek eskuduntza osoa dutenean.

Horrez gain, **LOE**k ausardia falta du hainbat gaietan aurreratzeko orduan, ikuspegi aurrerakoi batetik ezinbestekoak. Lehengo eta behin eta besteen gaienetik, eskola publikoaren apustu sendorik ez du egiten legeak. Ez du onartzen ez defizit estruktural duenik finantziario aldetik ezta kohesio eta egituraketa sozialaren alde lana egiten duenik ere. Ez da aukera berdintasuna bermatzen diru publikoaz hornitutako irakaskuntza pribatua kontrolatzeko aurrerapausorik ematen ez denean eta pribatizaziorako formula ezberdinak aurrera doazenean.

Mingarria iruditzen zaigu aurreproiektua egin dutenak jabetu ez izatea edozein erreforma ezartzerakoan hezkuntza arloan lanean gaudenen lan baldintzak hobetzea aurre baldintza bat dela. Agiriak ez du kontenplatu zama lektiboren murrizketarik, ez ikasle/gelako ratio aldaketarik, ezta plantilen interinitate maila jaisteko neurriak ere...

Ez gaude ados, estatuko Eskola Kontseiluak ezezik hezkuntza eragile gehienek ere salatu dituzten akordioen ondorioz erlijio katolikoak sistema publikoan duen pribilegiozko estatusa mantentzearekin. Gure ustez eskola publikoak ez du desberdintasun soziala landu behar. Ez dugu onartzen ere Administrazioak eragozteko zuzendariaren aukeraketa prozesua, eskola komunitate osoaren partehartzea bultzatu nahi denean, bai ikastetxeen kudeaketan baita autonomia maila handitzeko ekimenetan ere.

Azkenik, asmo on guztiak ezerean gelditu daitezke lege hori, hezkuntzako gastua handituko dela bermatzeko, beharrezko neurri ekonomikoez lagundurik etortzen ez bada. Taldeak bitan banatzea, banan-banako atenzioa, plantilen handitzea, jarduera tutoriala, orientazio lanak... dagozkien aurrekontuen hornidura igoerekin baino ezin dira burutu.

Bilbo, 2005eko apirilaren 14an